

Desagerturik



ULA IRURETAGOIENA

Non dago komentatu didazun tokiak?", "Google Maps-en". Geolokalizazioa eta kartografiatzen duen mapa, gailu boteretsuak bilakatu dira gure gizartean. Eraginkorrak dira: ligatzeko, erosteko, jateko eta leku batetik bestera mugitzeko. Mapan ez dagoena, existitzen ez dela sinistu arte. Baina ez dezagun ahantzi mapa ez dela errealitatea bera; zer agertu eta zer desagertu ideia batek domeinutzat duela eta beraz errealitateari forma eta deforma emateko gai dela.

Donostiako Tabakalera urtarrilean egin den "ikusezina ikusten" programan ikusgaitasunik gabeko, isilarazitako edo zailak diren egoerak eta fenomenoak mapa batera eramaten dituzten lanak aurkeztu dira. Datuen geolokalizazio ariketan, oharkabean dagoena ikusgai edo agerikoago egin daiteke; geografia eta datuak gurutzatzean eta mapa batean islatzean, badago kontakizun bat osatzeko osagaririk. Lokalizazio batek duen uholde edo sute arriskua kontu daiteke, adibidez. Migrazio mugimenduen edo hilketa baten kartografiatzea berri, gertakizun baten froga izan daiteke.

Missing Maps lan humanitarioa egiten duten eragileen proiektua da. Estatuek kanpo utzi dituzten tokiak/jendea mapetara eramateko ekintza burutzen dute, zenbat eta non diren jakiteko eta laguntza ematea ahalbidetzeko. Existitzen diren mapetan ikusezin bihurtu dutena agerian jartzeko bokazioa duten mapak dira. Leku eta jende horrek, une batez, mapan ikusgarritasuna izan dezaten. Mexikoko desagertuen kasuan, mapetan emozioak brodatzen dituztenak daude, ez-daudenen presentzia deituz eta bilaketa-ekintzaren bestelako narrazioak sortuz.

Beti egongo da gure mapatik kanpo geldituko dena, ezkutuan mantenduko dena, behin-behineko ikusgarritasuna izango duena, pertzibitzeko gai izango ez duguna; eskapatzen zaigulako, ezin direlako mapetan jaso, ahaleginak ahalegin. Gainera, agian, batzuek desagerturik jarraitu nahi dute, maparen ikusgarritasunetik urruti, biziraupen edo ezezagunaren-existentzia mota baten gisara. ●

Gol

JON TORNER ZABALA

Hamaika urteko semeak aitari esan dio pilota-eskola utziko duela, nahi duelako erabat zentratu futbolean; sei urteko mutikoak urduri dabilta, geroz eta gutxiago falta zaielako LH3ra heldu eta herriko futbol klubean izena emateko; zortzi urteko neskaren ama ironiaz mintzo da alabak partida galdu ostean ("Nola ez gaituzte ba irabaziko, nabari da haiek badakitela jokatzeko, eta gureak bitartean entrenamenduetan jolasen bidez ari dira..."); kirol federatuaz euren iritzia eman dute beste guraso batzuek ("Nigatik balitz, umeek hamabi urte izan arte ez lirateke kirol federatua hasiko"; "Futbola eta futbola, ez dute besterik buruan, federatua hasi aurretik kirol guztiak ezagutu beharoko lituzkete"; "Gipuzkoan behintzat beharturik daude eskola kirolean izena ematera klub federatuetan aritzeko, ona da hori"; "Guretzat marroi bat da ba, hainbeste entrenamendu, partida... baina semeak nahi du futbol taldean jokatu eta..."); pasa den ikasurtean, zazpi urteko umeek gelara futbol kromorik ez eramateko agindu zien irakasleak, elkarren arteko harremanak zikintzen zituztela-eta (pentsatzen dut urre koloreko kromoak dituztenek gainerakoak xaxatuko dituztela, edota gelako listoenak kromo-trukean beti garaile irtengo direla); beste irakasle batek Realaren posterrak jarri ditu ikasgelan eta, noski, orain beste talde batzuk gustuko dituztenek ere ekarri nahi dituzte haienak; futbola gustuko ez duen mutikoak hobe du futbola gustuko izatea ez badu gelakideek baztertu dezaten nahi; ostiralean zortzi urteko alabari markako zapatila koloretsuak erosi dizkio aita batek, alabak nahi eta behar dituelako; larunbatean, futbol partidaren erdian, aita horrek oihu egin dio alabari, baloiari ostikoa fundamentuz emateko; igandean bi kromo-zorro gehiago erosi dizkio, bi

euro pobreago umearen bilduma -eta egoa- aberastearren; eta astelehenean ARGIArako analisia idazten hasi da, futbol profesionalaren bueltako aldarri ezkertiar bat eta txor, txor, txor...

Kontu potoloak: gizonezkoen Espainiako Superkopa saldu izana Saudi Arabiari; emakumezkoen Superkopako finalistek eurek hartu behar izatea irabazi zituzten dominak; Realeko presidente ohi Iñaki Badiolaren aurkako epaiketa Twitter-en hainbat politikari, epaile eta kazetari irain-tzeagatik; zale batzuek Roman Zozulya jokalaria ukrainarrari "nazi" deitzeagatik A Coruñaiko Deportivok jaso duen isuna, Italiako Juventus klubari jarritako zigorra plusbalia faltsuen afera dela-eta... Ahaztu gabe poliziek Sadarren kendutako banderak eta San Mameseko "korok" hauspotu duen probintziakeria.

Askotan galdetzen diot nire buruari, futbolarik noiz uzten dion izateari "umeen kontua", bihurtzeko, ez dakit ba, eman genitzake hamaika definitzio. Eta ez derrigor negatiboak, ezta gutxiago ere! Golek eragiten duten felizitatea oinarri izan daiteke-eta gustuko gizartea erakitzeko. Edo erresistentziarako. ●

